

# Juan Garmendia Larrañaga

## Euskal esku-langintza bilduma



10



Juan Garmendia Larrañaga Bilduma

**1973.** Album de artesanía vasca = Euskal esku-langintza bilduma / Juan Garmendia Larrañaga ; fotografías Victor Charola. - Donostia : Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1973. - Euskera-castellano

---

## 2007

Euskal esku-langintza bilduma / Juan Garmendia Larrañaga ; argazkiak Víctor Charola. - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. - 31 p. : 66 kromo kol. - (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 10) - ISBN : 978-84-8419-076-9

---

### Argazkiak

Victor Charola



---

### EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.  
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56  
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: [ei-sev@eusko-ikaskuntza.org](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.org)

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga  
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin

# Euskal esku-langintza bilduma

Juan Garmendia Larrañaga

## Orria

---

Kredituak	
Sarrera .....	5
1. Sagardoa .....	6
2. Sagardotegia .....	6
3. Gaztain-zumitzezko otargintza .....	6
4. Zumitz eskulangintza .....	7
5. Zume-eskulanak .....	7
6. Artzai-txabola .....	8
7. Kaikua .....	8
8. Oporra .....	8
9. Abatza .....	9
10. Pala luze ta motxa .....	9
11. Zimitze .....	10
12. Errremonteko saskia .....	10
13. Zintzarria .....	10
14. Zurezko zalia .....	11
15. Ezpel-zali-andia ta xardea .....	11
16. Txurka .....	12
17. Argizaiola .....	12
18. Ezkolodi edo atxoa .....	12
19. Illarria .....	13
20. Traba .....	13

21. Ardazketa .....	13
22. Txalma .....	14
23. Bakar uztarria .....	14
24. Biko uztarria .....	14
25. Itzai galera .....	15
26. Gurdia .....	15
27. Lera edo lega .....	16
28. Garrastea .....	16
29. Ola, espardea edo esiya .....	17
30. Xare .....	17
31. Alperra edo trinkoa .....	17
32. Area, aria, arrea edo arria .....	18
33. Eskuzko marka .....	18
34. Artoa ereiteko makina .....	18
35. Besabea .....	19
36. Segá .....	19
37. Segá-potoa .....	20
38. Kaixuleta .....	20
39. Puntako-txistera .....	20
40. Erlauntza .....	20
41. Abaraska .....	21
42. Bildumena .....	21
43. Bastea .....	22
44. Kakoak .....	22
45. Tarria .....	22
46. Uranditako ta txikietako ontziak .....	23
47. Motordun ontzitxoá .....	23
48. Trainera .....	24
49. Trainera txikia .....	24
50. Batela .....	24
51. Aingurak .....	25

	<b>Orria</b>
52. Aizkora .....	26
53. Dorre-erlejuak .....	26
54. Abarka .....	26
55. Eskalaproiak .....	27
56. Pelotari goantea .....	27
57. Espartziña .....	28
58. Ardo-zatoa .....	28
59. Botana .....	28
60. Erreboterako txistera .....	29
61. Eskuarea .....	29
62. Zagigintza .....	29
63. Irulea .....	30
64. Malatxa .....	30
65. Laya .....	31
66. Bustiñontzigintza .....	31

## Sarrera

---

Dakizunez, «Club Juvenil» sortu zenetik iru urte igaro dira. Urte muga ontan, urtero bezela, album berri bat atera du gipuzkoar aurrek sorterrria eta bertako gizonak obeto ezagu ditzaten.

Leen argitaratu zen albuma, 1972 urtekoa, gure erri etxetako armarriak azalduz osatu zen. Armari auen bidez, kolore eta irudi auen bidez, Gipuzkoako erriak ezagutu genituen. 1973 urtean, berriz, gure ibai eta mendiak gai arturik kromo batzuk egin eta zabaldu ziren. Kromoen bidez gure lurra obeto ezagutzera iritxi ziren gipuzkoar aurrak. Orain, album berri bat duzu esku artean, 1974 urteari dagokion albuma, Euskalerriko esku-lanari eskainia.

Burni eta egurraz baliaturik, adimenak eta irudimenak eragiten zietelarik, amaika esku-lan egin izan dute, gure aurreko gipuzkoarrek eguneroko bizitza aurrera ateratzeko. Batzutan, esnea gordetzeko eta abar, egurrezko tresnak egin izan dituzte; bestetan soineko eta gaiñontzeko jantziak gordetzekoak; burniz ere lan arrigarririk egin izan dute ateak eta leioak itxuratuz. Eguneroko bizitzak eskatzen zuenaren arabera egin izan ditu tresnak gure aurreko eta gure garaiko gizonak.


Esku-lana eta esku lanez egindako gauzak ezagutuaz gure erria obekiago ezagutuko dugu. Istorian zear gipuzkoarrek egindako etengabeko lana ezagutu ondoren intzaketzat artuko dugu.

Tolosar batek aurkeratu du emengo tresna zerrenda eta bertan ematen zaigun azalpena. Zuek gogoan arturik Juan Garmendia Larrañagak gogoz prestatu du lan au. Bertan azaltzen diren argazkiak Victor Charolak eginak dituzue. Berari eskerrak duzue album au esku artean.

«Club Juvenil»eko bazkideoi pozik eskaintzen dizue «Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa» etxeak ainbeste pertsonak osatu dute eta album ontan azaltzen den lana. Gure gauzak ezagutzeko duzuen egarria aseko duzuelakoan dago. Gipuzkoa, obekiago ezagutu ondoren, geiago maitatuko duzue.

## 1. SAGARDOA

Gure Euskal-mendiak sagarrondoaz ongi orni-tuak egon ziran ezkeroz, aien zumo, sagardoa izan da Euskal-erri geientsuko edaririk artuena. Sagardogillearen lenbiziko lana sagar-jotzea da, ondoren, tolaren ongi estututa gero, kupelera ixurtzen du irakin dezan. Aintziñaldean tolareak zurezkoak omen ziran; orain ordea, basetxe batzutan ikus dezakegunez, burnizko ardatza dute.



## 2. SAGARDOTEGIA

Gauregun, sagardotegiak oso bakan da urri arki ditzazkegu an da emen baxterretan erdiezkutaturik; baña ezdira ainbeste urte zenbait euskal-errietan benetan ugariak zirala, ategaiñean beren lizar-adarra ezaugarri zutelarik. Kupe-landiz estaliak zeuden sagardotegiko orma zarrak. Bere alkitxoan exerita, urontzia alboan basogaribiketarako zuela, ta kanilla eskumendean, an egongo zan arretatsu ta patxara ederrean andre sagardosaltzalea. Giro berezi, alai ta atsegiñ baten, berak egingo zituen bezeroekikoak.



## 3. GAZTAIN-ZUMITZEZKO OTARGINTZA

Ur-potzua, labea ta lanalkia, moldeak, matxeta, labana, eztena, bieskule-kudun azia ta zurezko mazoa dira saskitegi oetan bearrezkoak, neurri ta mota guzitako otargintzan. Gipuzkoako Nuarben, xettagintzan nabarmena



dugun errixka ontan ikasi bezelaxe damaizutegu otar edo saski ezagunenen berri: kuebano-otarra, maatsbilketarakoa, kopa-saski edo kopa-otarrak, laukuadroko zorua ta ao borobilleko diranak eta lepasaski edo lepota-rra, gure baserritarrak, arto, sagar da beste zenbait lur-etekin jasotzeko darabilkina.



#### **4. ZUMITZ ESKULAN-GINTZA**

Zumarraga degu Gipuzkoan zumitz eskulanaren sorleku, igarogizaldi azkenalderuntz. Zumarragan lanketa ortarako basa-zumitza ta beselakoa ere erabilli izan dituzte. Beroien lana erosketarako otarra ta zapi-otarra –borobill da txokorakoa–, naiz ormara-koa–, ta baita besalki ta kutxak ere.




#### **5. ZUME-ESKULANAK**

Zumeaz, aurrez bear bezela gerturik, zenbait errediza-mota egin oi dira, ta oietan aitagarrienak, besalki ezagun-ezagunak, baita erientzat bereziki egiñak ere, eserlekuak, etzalkiak, maiak, oa-sare ta alkitxoak



## 6. ARTZAI-TXABOLA

Artzai-etxola kokkor ori ezagutu al izateko, ardiak larreratzen diran belardi gozoetara urbidu bear dugu. Adibidez, Urbia ta Urbasako abere-bazkategi aberatsetara. Menditar txabola ortan bizi da artzaia udaberrialdean, udara, ta baita udazkenaldi baten ere. Orain urte batzutako txabola oietako bati ikustaldi bat demaiogun. Ortxe arkiko ditugu, karkua, oporra ta abatza, ta baita, txurka, malatxa ta zimitza ere.



## 7. KAIKUA

Ontzi au zurezko zati bakarrekoa da, urkizkoa geienetan. Bere tankera txuntxur edo kono motz batena dezu, aaldea zorua baño zerbait zabalago. Kanpokaldetik eskulekua darama, kiderra, beats-txikerrarentzat txuloduna. Goiko ertzera iritxiaz, ao erdira sartzen da ta eskuleku gertatzen. Litro batetik ogeirañoko sargunea dutenak izan oi dira. Ardi-jezteko, esne-biltzeko erabili izan oi dira maizenik.



## 8. OPORRA

Au ere txuntxur motz baten tankerakoa dugu, oker-antxean tajutua. Zurezko zati bakarrekoa.



urkizkoa du gaia sarrienik, eta eskulekuak ez du ezer aitatzekorik. Bere neurriak litrokoak, erdikoak edo laurdenekoak, talo-esnearentzat erabiltzen da, baita ere mamiarentzat.

## 9. ABATZA

Kaikuak eta oporrak bezela, ontzi onek ere txuntxur motz baten tankera du. Eskuleku bat izaten du alde bakoitzean. Ogeitabostenbat litrokoak izaten ziran abatzak. Artzaiek, bear-bearezko zuten orduan gaztagintzarako.



## 10. PALA LUZE TA MOTXA

Uste izatekoa da, pelota-jokuan, eskuzkoari antziñatasunez palazkoak jarraitzea. Leengo egur mokor landugabe aiek gaurko pala txapal da zeatz-tajutuak ondoretu dituen moduan. Kirol-joko apain onek, erreminta ain moldaerrexari ezer tajuzkorik ez dagokiola dirudiñarren, izatez ez da orrela, oso besteraka baizik. Palagintzak eskulanketa txit trebea eskatzen du. Zurak, leuna ta korapillorik gabea izan bear du, ta neurri jakiñetan ebakia ta meetua gaiñera, burualdea lodixeago uzten zaiolarik. Pala-motxaren neurriak, izena berak esaten digunez, motxagoak dira luze izenekoak baño; onek berrogeitamabost zentimetro ditu.





### 11. ZIMITZE

Gaztanbera sartzen dan molde-otzaratxoari, zimitze desaiote. Zimitzak borobil tankerakoak dira, ta nai dan neurrira egokitzen. Orain zimitzak metalezko dira; baña lenago zurezkoak, zorualdetik zulodunak, eta andik barrena zijoan gazura abatzero. Ondo ori, zearo soilla naiz apaingarriz landua izan zitekean.



### 12. ERREMORTEKO SASKIA

1905 urte inguruan, Juan Moya asi omen zen orduarte ezagutzen etzan pelotasaski-mota bat mol-datzen. Erremonteko txistera zan bera, denporaz ospetsu izatera iritxiko zan jokaera berria. Tankera ontako saskigintzari uztarritik ematen zaio asiera, uztai ta saietsetatik, saski-puntazkoenak baño sendagoak izan bear dutelarik. Saskiaren eio-lanerako zumitz-pitzakia darabilte.



### 13. ZINTZARRIA

Mitologi-arloan, azti-endarrez ornia dagerkigu yoarea, ta jolaskizunetan aski erabillia izan arren, bere betekizunik ezagunena abereen lepokoetan du noski. Zintzarriak tankera ta neurri askota-

koak. Eiz-txakurrentzakook, arkume edo axurientzat, larreko ardiarentzat, eta baita abelgorri ta zaldi ta beorrentzat ere. Dulundak deritzatenak, borobilla-goak dira, ta kalanka izenekoak berriz, lauki-luxangak. Bada beste zintzarri potzolo-antzekoa, ao borobilla, Naparruko Zubietan, polunpa, ta Gipuzkoan ostera, dunba deritzaiona.

#### 14. ZUREZKO ZALIA

Zenbait beste eskulangintza gauzei bezelaxe gertatzen ari zaio tamalez ezpeli-zali edo kollaragintza oni ere; jendeak, gero ta arreta gutxigo olako bitxie. Gaurko industri-olak beren obariak saillean botatzeak, eta metalezko maitres-nagintzak, leengo txaligille zarrak ia zearo eskutarazi ditu gureartetik. Ezpel-zuraz ornitzeko, txaligilleak egokien datorkion basora joko du. Darabilten neurria arrabetea izaten da.



#### 15. EZPEL-ZALI-ANDIA TA XARDEA

Zurezko kollara andi ta txikiaren berezitasun bakarra, beren neurri ezberdiñetan datza soilki. Txikia, arrabetekoa da izan, da zali andia berriz, berrogei bat zentimetrokoa. Jaki-xardea, berebat, arrabetekoa da, ta lan nekotsua da oso, esku leguna eskatzen duena. Bere gai-antolaketa ta ortzak lantzea, ain auskorak izanik, patxaraz da trebetasunez egin bearrezkoak dituzu ta ez nolana ta aluxuan.







### 16. TXURKA

Artzaiak, lana eskuz zegiñean, apatzaren aoan, batetik-bestera, txurka ize-neko egur zati irukotxa ezartzen zuen, txuloduna bera, ta orrela, matoia eskuz sakatzean, gazura, zimitz eta txurka-zulotik barrena, apatzera jizjoan.



### 17. ARGIZAIOLA

Bildumen beraren azken-uztai gaiñean, naiz argizaiolaren gerrian bildurik, ikus ditezke oraindik ere nonbaiteko eliz-illobietan sendiko ziranen argigarri. Bi eratako argizaiolak ezagun ditugu: soilak, au da, lau-oinzun oltxo kuadratuak, edo ta aldebietatik –argizaipetik ezik– eskulan apaiñez ederkitxo dotoretuak.




### 18. EZKOLODI EDO ATXOIA

Kilo bat baño geiagokoari deritzaio atxa edo atxioia. Kandelatzar au lengo elizbiratan da itzeman-zurrean eskeiñia izan bada ere, bere betekizunik bereziena, eliz-barru naiz kanpoan, ildakoen-tzat opari izatea izan da. Errixkatak elizetan zurezko oin-argieustalle baten fin-katurik piztu oi dira.

## 19. ILLARRIA

Illarri burudunak, emen gure alderdion bestetan baiño ugariago ba-dakuskigu ere, ez dira EuskalERRI bertakoak soilki. Illarri burudun auek, mundu ontatik joan ziranen oroigarri bereziak ditugu. Bere finka-leku zaarrak illobitegia adirazten digu, ta eurak dira bidebatez, gure aurrekoen arri-lantzearen erakusgarririk berarizkoenak. Batzuk ez daramate izenik, ez zinzel-lanik, edota denpora joanaren jate-lanak irakurgaitz eta ezagugaitz biurtu ditu; bestetzuk, ordea, ezaugarri ongi markatuak dagerzkigu: izkieraspen edo monogramaz, lauburuz, beste gurutze era askotako, orri, lore ta izar.



## 20. TRABA

Zurezko euskarria dugu, ta anka-ezurrei bearbezela lotuta, aberea geldixeago, urrats motelagoz ibillerazten du.



## 21. ARDAZKETA

Artzaiak, loreilla, garagarrilla ta uztaillak ardillemozketari ematen dizkio. Artillea garbigortu ondoren, karbatu edo txarrantxatu egin oi du. Gero, irun edo ardazketarako zurezko txirrita batez baliatuko da, beste izen askoren artean, txabila deitua.



## 22. TXALMA

Gauregun, basoerrietan, nekazaritza –lanak abere– indarrez ez baña tramankulubidez, makineriz dagizkite. Orretxek dakar alabearrez berekin lengo tresna askoren galteza; esaterako: xalma, artolak, zamuka, arbaldak, basta. Arbaldak zamarienezako da, ta aberearen neurri-neurriko izan bear du. Txalma edo arbaldak kalamuzko terliz-estalki bat darama lastoz betea. Illaunezko biguingarri bat dauka itsatsirik abere-lepoa larrutu ez dezan. Mandatresnaren garaikaldetik eta aurrekaldean, lastozko burukotea dijoa. Larruz sendoturik buru ta buztan aldeak.



## 23. BAKAR UZTARRIA

Ganaduak lanerako uztartu egiñ oi dira. Uztrria egur-zati osokoa izaten da, ta pago-zurezkoa geienetan. Euskal-uztrria adarretarako dugu ta lepagaiñean kokatzekoa. Uztrria buru-bakarra ez da aiñ ezaguna gure baserritan. Uztrria txiki onek, bi adar-zulo, bi ere-koskak ta ere zuloa ditu. Baita ere bi kurtere edo gurtere zuloak eta burulekua. Lotzeko uztaredea, larruzko zerrenda bat da, erabatekoa naiz zatitan osatua.



## 24. BIKO UZTARRIA

Idi-uztrria beientzakoa baño zerbait aundixeago da izan. Lau adar-zulo ditu, lau adar-koska ta buruleku bi. Erdian kurtere-zuloa bekaldetik zabalxea-



goa. Ba-dira uztarriak aurrekaldetik oso zizel-lan politez apainduak: orriz, lorez, gurutzez, abere-buru «estilizatuz» ta abar, begizkoaren aurkako ezkutu-indarrez orniak direlako ustetan marraztuak. Aizto-lan oetantxe dager noski euskal-uztarriaren berezitasunik aipagarriena.




## 25. ITZAI GALERA

Inguru lorretarako sasoi baten genekuski-gun galerak datozkit gogora. Itzaia, uztarri-abereak eta galera-karrotzarra, gaurko gure kale ta bidezabaletatik ezkuta ziran aspalditxo.



## 26. GURDIA

Egun, baztertuxamar-tua arkitzen delarik ere, gurdiaren-bidez egin izan oi ditu betidanik baserritarrak eraman-ekarri guziak. Gurdi-ibillerak badi berekin adirazgarri ozena: ardatz-kirrinka soiñu bizia, alegia, geure gaztaroan amaika aldiz atsegiñez belarrietar-tua. Ezkon-bezperan, emaztegaiaren arrioa gur-dian zeramatenean, ardatz-xixtu alaiak adie-






razten zion auzo-inguru guziari gertakizun pozkariotsuaren berri. Gurdi onek egurrezko ardatza ta bi kurpil daramazki. Gurtetxea erretangularra da, erdiz-erdi aritzezko pertikaz aurretik atzera zearkatua. Pertika-agaz gaiñera bi abes eta zazpi edo bederatziz zear-abe eramaten ditu.

## 27. LERA EDO LEGA


Belarra, alpapa, erramolatxa ta abar karriatzeko toki malkartsuetan darabilten antxiñako tresna. Lera, beste gauz asko bezela, ez da gurea bakarrik, beste errialde zenbaitetan ere aski eza-guna da. Gurtetxeak iru zurezko abes ditu luzetaka, ta sei, zortzi edo amar zear-abe, beti biñaka. Aurreko ezpata, zuloduna ta okerra, ta atzekoa berriz motzagoa, gurtaga deritzan pertikabidez alkarri lotu oi zaizkionak zamari eusteko



## 28. GARRASTEA


Esku-malladi ariñ bat da itxuraz, baiña bai bitxia ta artarakoxea. Oso-osorik egurrezkoa da, ta ontantxe dago aren berezitasunik nabarmenena: oiñ muikorra duela, ardatza, uztai zabalkor baten lasaixamar kokaturik, nolanaiko zoru ezberdiñari egokitzten zaiona. Ardatza, oinzuloan zear-abetesari tornilluz loturik darama. Zear-abetes onek, alde banatan ointxo bat dauka, lurrean itsatsi dedin. Mailla batetik bestera ogeitamar zentimetro ditu. Garrasta edo delako esku-eskilleratxo au, zugaitzetik igaliak, frutak biltezeko berebizikoa da.






### 29. OLA, ESPARDEA EDO ESIYA

Lan-tresna onekin nekazariak alor-lurrak xeetzen diardu. Zuretxe edo bastidorea du, ta zorua gaztain zur-ziriz eioa. Atzean, eskulekua uztai moduan, besabea deritzaiona. Aurrekalde-tik, berriz, katea darama zear-burni bati lotua, abel-tresneriari atxikigai.



### 30. XARE

Pelota-joku era au, saski landugabeko zaar-rean arki dezakegu. Antziña, gaztainazurezko uztai zeramakin, da extuagoa zan, luzeago ta makurragoa azkenaldi ontan darabiltena baño. Orainaldian daraman zurajea zume-basakaxkoa da, egurrezko zurkaintz-moldean prestatua. Sarea, algadoi zurizko biurrizkoa da, sarezulo txabaletan gurutz elkartua. Xare aundiaz, esku-palako deritzan pelota erabiltzen zan. Orain, irurogeitamar gramoko pelota txikiaz jokatzen da, oietatik ogeitamar gomari zor zaizkiolarik




### 31. ALPERRA EDO TRINKOA

Lur-mokorrak xetzeko ta zanpatzeko erabiltzen da. Arrizkoa naiz zurezkoa izan ditekela alperra

edo trinkoa. Aldebanatan zuloa ta bi txinela daramazki, zurezko bi ziri ardatza zuretxeari josteko, bi abes luzetaka ta iru zear-abe ta pertika.

### 32. AREA, ARIA, ARREA EDO ARRIA



Lantresna onegaz ematen zaio lurrari azken-ikutua azia ereiñ aurretik. Bost zurabeko oetxea izan oi du, edo bearbada, laukoa luzetaka ta bi zearka. Aurrekaldez estuago da, ta burniaga baten argollauztaia daramaki abere-tresneriari ezarrigai. Atzekaldetik, goldeskuuztaia, izen askoduna: arresumilla, andallue, arbesatea ta abar. Ogei bat areortz oi ditu zura-beetan banaturik.

### 33. ESKUZKO MARKA




Lurra landuta utzi ondoren, azia ereiñ aurretik, marka deritzan lanabesaren bidez, ildoaskak egiten dira. Lau ortzeko zear-abe bat eta bi metro inguruko pertika, eskulekutat balio duena ditu. Esku-marka gaur gutxi ikusten da. Arto-ereiteko makina edo tramankuluak ezkutarazi du.

### 34. ARTOA EREITEKO MAKINA

Langaillu onen egitekoa ez da bakarrik artoereintza, babarrun da txerriari azia zabaltzeko ere erabiltzen baita. Bi abes ditu albotan –aldebazta-




rrak- eta beste bi zearka. Oletxeak ardatza darama erdian kurpil ortzduna. Alde banatan ol-ontzi bat, azientzako. Ardatzak zuloak bere xaflakin dauzka aletegien parean, da, bere ibillera makalean azia lurrean zabalduz dijoa. Aurrekalde-tik bi burni-uztai dauzka, kate-bidez abere-tresneriari erantsigai.



### 35. BESABEA

Bi besabe mota ezagutzen dira: zazpiortza, lurra artoereiteko prestatzeko ta bostortza artajorrarako. Bi besabeak, besageak edo burdinareak, berdintsuak dira; zazpiortzak ez du andixeago izatea beste alderik. Aurrekaldez baño atzekalde-zabalago dira ta emen bi oraleku edo auntzak besabe-akerrak edo eskulekuak dituzte. Bestaldetik berriz, lema makurantzekoa, ganadu tresnari atxikigai.



### 36. SEGA



Ebaketarako lantresna ezaguna sega. Ebaki-orri okerrantxa du ta muturzorrotza. Kirtena zurezkoa, burni -euskarri- bidez lotzen zaio sega-orriari ta txabetaz estutu. Bi kider ditu eskubanakin eltzeko. Bata, agaren garaikaldetik ta bestea erdialdera, lengotik berrogeitabost zentimetrora edo. Erabilli beardunaren neurrira egokituak izaten dira luze-laburrean.



### 37. SEGA-POTOA

Zurezko ontzi txiki au zati-oso-koa da, ogeitabost zentimetro goibe. Egur eze naiz igarren landua. Segalanean nekazariak diardun artean zorroztarriak eze iraun dezan, ur pixkat darama ondoan. Zorro au egiteko, eskulangilleak, zura barrutik ustu ta kanpokaldetik legundu egin bear izaten du. Ba du kirtentxo ta bereortatik lotzen du segalariak ugelaz gerrian.

### 38. KAIXULETA

Zurezko esku-zorro bat degu, itaiaz egiten diran lanetan esku-beatzak babesteko. Bi neurritakoak izan oi dira: aundiena, edo beatz-txikerra, nagia, erdikoa eta bigarrena gordezeko diranak; eta beste txikiago bat, beatz txikia, nagia ta erdikoa babesten dituna. Gaureguneko motordun lanabesak gal-zorian jarri du kaixuleta.



### 39. PUNTAKO-TXISTERA

Kirol-tresna onek 1888-garra-nean du asiera. Errenderiar Meltxor Guruzeagari zor zaio jolas-erreminta mota au. Ordurañokoak baiño andiago ta barrunbe sakonagoduna da berau, beraz, egitura makurragoa. Txisteragintzarako, lenengoz, uztarria, uztai ta saietsak antolatzeari ekingo dio. Zume-iotzeak, uztarriondotik asi ta len egindako erdia jotzeraño jo bear du.

### 40. ERLAUNTZA

Arkaitz-zuloan naiz zugaitz-enbor-obian arki dezakegu erledia. Beroietan baña, izadiak berez sorturiko gauza danez, giza-eskuak ez du ortan zerikusii-

rik. Ba-dira ordea batzuk, basatiar da apalak izanarren, eskulangintza barrutian nolarebait sartzen diranak. Ezagunenak, metro exkax edo metro terdiko neurritan errenditzen dira, ta zugaitz-enbor barru-ustua, ta bi aoadetatik itxia dezu bera. Alde oietako baten, txulo batzuk ditu erleen sartu-erteerako. Arestian esan dugun au baiño landuagorik ere bada beste bat bi ateduna. Erlategiak ere berrikuntzak ametitzen ditu.



#### 41. ABARASKA

Erren, eskulangille ez da gizona, erlea baizik. Alabaña, ezti-orraziak beste zenbait eskulanekin zerikusirik ba-duen ezkeru, merezi du noski gure arreta ta oroitzapena. Erlea oso izaki lagunartezalea da, marruskalari-miaztalletakoa. Lanzaletasun, itxaropen da biozgarbiaren iduri bizia. Euskal-mitologian, osteru, oso sartua. Naizta erregintza bakarra-rena izan, abaraskan sortzen dira denak elkarrekikotasunean: erregiñak, langilleak eta erlanagiak ere, oek miztogabeak.



#### 42. BILDUMENA

Argia, il da bizientzako bearrezko delakoaren antxiñako siñesteak, izan du gaurdañoeko iraupena. Orrela ezagutu aal izan ditugu argizari-bildumenak, zuri naiz gorrixkak, neurritz ezberdiñak, gure eliz-zolatan, leenaldian etxekoen illobi izandakoetan ezarriak.





### 43. BASTEA

Txalma baño abere-tresna sendoagoa da, ta arbalda baño zama andiagoz erabiltzekoa. Tresnamendu onek abere neurriei ongi egokitua izan bear du. Aldebantatan zura-ziri bat dauka arpilleraz bildua, ta arpillerari erantsirik sokamuturra. Soka auen eginkizuna, larruari eutsirik bastea sendotzea da. Basteak lau arzo edo egurrezko zelaurki ditu ezarriak, aurrerako bi ta atzerako besteinbeste, saietsekoa deritzan oltxo batez alde bakoitzetik elkarturik.



### 44. KAKOAK

Izenak berak zerbait adierazten digu. Bikoitza da ta zurezkoa. Basta edo arbalda gaiñetik, aberearen bi alderditara zintzilik jartzen dira. Kako auk lokarri lodiz edo tornilluz lotzen dira, erabili ondoren elkarengana bil ditezkelarik.



### 45. TARRIA

Gurbi-zurezkoa da, ta bere betekizuna, soil-soilki, zamariaren galgarrari eustea. Ugal-ede batek txalma edo baste albotatik zear abere-anka ta buztanpeak inguratzen ditu.



#### 46. URANDITAKO TA TXIKIETAKO ONTZIAK

Itxaso izanik errienarteko berezko elkarbide zabala, ortik kontura gindezke erriberatako arotzak gureartean izan duen garrantziaz. Eskulangille onek, antziña artan, bere lana erretua zeukan arras, burdiñolak eta euskal-baso oparotsuak zemaïoten langaiatz. Gurealdi ontan bertan, urontziola edo astillero erdi-tamañakoa, bere uranditarako naiz txikirako ontzi erdiegiña zagerrela, edozein urertzetan errex begietaritzen zitzaigun ikuskizuna zan. Erriberatako arotz oien gain zegon ontzi-zuraje guzia armatzea, asi gillatik, ontzi-aurre, korasta eta saietsolak ezartzea.




#### 47. MOTORDUN ONTZITXOA



Arrantzurako ontziari buruz ari gera emen soilki. Txibitan eta irusare, atarrain edo garpakin ari direnak alegia. Erriberako arotzari zegokion ontzigintza au. Orrelakoen lanola ez da izan oi andienetakoa, ta sarritan, portu-inguruko etxape baten arkitzen da. Ontziteri oien neurriak ez dira izaten beti berdiñak; baña, gutxigorabera oetxek dituzu: bost metro eta larogei zentimetro luzeran, metro terdiko errun edo manga, ta irurogeitamabost zentimetro zuntoiak. Lareun kiloko zama du motor da guzi.



#### 48. TRAINERA



Arraun-ontzi auek, antxiña arrantzurako erabili oi ziranak, kirol-neurketan dira gaur aski ezagunak. Lengo trainera-ontzia oraingoa baño zakarragoa zan. Gillatik asten da eskulangillea traineragintzan, da egurrezko zati orren jarraian jasotzen du beste gañontzeko ontzi-zuraje guzia, au da, bular-alde ta branka burdiñak, aurrez gerturikako plantilla-bidez. Gero saietsaldeak jasoko ditu. Trainera-ontziak bederatzi alki ditu, tostak deritzatenak.

#### 49. TRAINERA TXIKIA



Kirol-neurketarako asmoz egiña da, ta 1944 urte aldean sortua. Beraien pixua, eundaberrrogei kilotik eun da berrogeitabostera zan, da gaur egiten diranak berriz, larogitamar-larogitamabost azpitik. Gutxienez eun kilo eskatzen zaizkielarik, ariñagoi neurri jakiñera iristeko bear ainbat zama erasten zaiete. Trainera txikiak, lemazai-patroia ta sei arraunlaridunak eramaten ditu.

#### 50. BATELA


Ibaizabala ta izpazterra dira batelentzat lekurik egokienak. Patroia ta lau arraunlari daramazi. Irurogeitamar kilo bear ditu izan gutxienez, eta kirol-neurketarako betebearreko neurriak oek dira: zazpi metro luzeran; metro bat

amar zentimetro ta bost milimetro errun edo mangak; berrogeitaemezortzi zentimetro aurre zuntoia; ogeitamairu zentimetro ta bost milimetro erdiko zuntoiak, eta berrogeitasei zentimetro atze zuntoiak. Ala ere, ikus ditezke arraunneurketetan zazpi metro terdiko luzera dutenak.



## 51. AINGURAK

Ainguraren aztarrenak itxasontzien antziñatera garamazki. Ta ez dira gaur goizekoak beroietzaz dakizkigun berriak. Esanaren sendogarrri, aski dugu zenbait armarri ta irudi gogortzea, naiz illarri-burudunak aingura-gurutzez orniak, eta domiñak, eta erroma-grezitar diruak. Gipuzkoan ainguragintza burniolen babesean zertu zan. Aiako Juan Permiñ Gilisasti dugu ontan aitatu bearreko. Beroni zor bai-zaio lendabiziko aingura aundia egiña, 1739 aldean. Gaur ere badauzkagu oraindik ainguragintzan diarduten eskulangille bat edo beste, alabearrez.



## 52. AIZKORA



Lurrean gizona azaldu zanetik beti berekin izan duen lantresna dugu ba auxe. Ez da beti orain ezagutzen dugunaren jitakoa izan. Aintziñako arrizko artatik gaurko burnilanduzko zeatz-tajututako dizdiratsu oetara, alda-bide luzea igaroa du gizaldiak zear. Aizkorak, bere jakiñeko erabilleraz gaiñera, leku apartekoa du gure mitologian da baitan baserritarren arteko kirolneurketan ere, aizkora-jokuak ba-du garrantzia.

## 53. DORRE-ERLEJUAK



Gure gizaldi ontan gertakizun bitxi, ezezaguna ba-deritzaigu ere, gaur elizdorre zarretik naiz errikoetxe ormatan bere egitekoa zintzo bete duten erloju oien egilleak garrantzidunak izan dira oso burni-forjan aritu diran eskulangille artean. Sutegi apal bat zuten beren lantoki, ta an arki genitzake: taratulu, katxetak, burniguraizak, mailluak eta mazoak, txingura, ta eskuz eragin-bearreko auspo-andidun sutokia.

## 54. ABARKA

Berorixe izan da gizaldi onen asierarte artzai ta menditarrak erabili izan duten ia oiñetako bakarra. Abelgorri-larru zati gordiña da, abarkagilleak abere ilberrian bereganatua. Garbitu ta legortzen jarriko du. Onela gerturik dauka



bere lanketarako. Lendabizi, molde batzuez baliatzen da, ta belaungaiñerako ola, urkilla, aiztoa, soilketa-rako tresna, abarkaziriak, guraizak eta mazotxoaz. Abarka margo-orixkaduna izan du geienetan erostunak gogozkoen, da kolorea, argixegotillunxeagoa, darabilkin larru klasean datza.

## 55. ESKALAPROIAK



Egurrezko oiñetako oetan, bi tankerakoak agertuko ditugu. Espartzingaiñetik eraman oi dena, maizenik ubal baten bidez oiñari lotua, ta oiñetako bakar bezela erabiltzen dena, bere oingañeko larruz osatua. Eskalapingintzarako zurgai: intxaurra, urkia, altza naiz gaztain fiña oi da izan. Garbia bear du, au da, adabegi ta korapillorik gabea. Leengai au, bear neurrian ebakita, eskulangleak aizkoraz azal-garbitzen du ta lantzen. Ondoren, aizkoratxo berezi batez lortuko du oiñetakoari dago-kion tankera ematea.

## 56. PELOTARI GOANTEA



Pelota dugu, noski, euskal-kirolik sonatuena. Larruzko goante motz, tarteko ta luzeekin joka izan oi da era askotara: pasaka, luzetaka ta errebotean. Goanteak egiteko, forma ta neurriz kanpo, abelgorrien larrua degu erabiliena, idiarena bereziki. Iru larruzko azal daramatzi, eta eskulangleak bakoitza bere egur-molde baten, bata-bestearen gain tolestaturik ipiñiko ditu. Pelotiritzan larruzko goantea leenagokoa da izan zumezko xexto edo saskia baño.





## 57. ESPARTZIÑA

Espartzingintza mekanizatu dago arras; baña, agian, arki deza-kegu nonbait eskulangille bakartia, bere etxeatadian, alki etzanantxean, jostorraz-larria ta pita eskuan, lanari loturik. Zorua gertutzea izan oi da espartzingillearen leen zer-egiña. Zoru orri oiala ezarriko dio, barru ta kanpotik josia. Eta azkenik, zinta jarriko.

## 58. ARDO-ZATOA

Naizta gure egunetan zerbait mekanizatu egon, ardo-zatoa eskuz egiña izan da. Bere gaia auntz-laruzkoa da, ta sarrienik, eskulangi-ilea aurrez ondutako larruz ari oi da. Plantilla batzuen bidez egin oi ditu bear diran neurriko ebaketak. Eta jusketa ostean-antxiña eskuz zegiña – pikeztatzeari emango zion. Zato aon sartzen dio gero muturrekoa, zurezko, adarrezko, plastikuzko naiz bakelitzakoa. Zatoaren neurriak, txikienetik aundienera, litroerditik lau litrorañokoa.



## 59. BOTANA

Egurrezko txatal borobilla da, zaragi ta zatoak izan ditzaketan urra-tuen osagarri. Ez dira tankera bakarrekoak txaplata oek, botana izenez gañera, txilistak, txilborrerakoak, «markal» da «espejal» deituraz ezagunak. Botanagintzari emanak izan dira eskulangille batzuek; baiña batezere, oien artean Arabako Kanpetzu erriko txirrikerakoak.





## 60. ERREBOTERAKO TXISTERA

Beste zenbait gauzeekin bezela, ezin ziur-ziur baieztatu noiztikakoa dan pelota-jokurako txisteraren sor-kuna, baiña gutxigorabera, XIX-garren gizaldi erdialderuntz jarri genezakegu. Askaingo Lakarra uste da zumezko txisteraren berritzalle izan dela. Laburditar eskulangille onek utziko zuen noski erreboteko txistera gaur dakusgun bezelako. Bere neurriak, uztai erditik bestealdeko erdialderaña, berrogeitamalau zentimetro dira aurrelariaren txisterarentzat, eta bi zentimetro geigo atzelarienak.



## 61. ESKUAREA


Baserritarrak, sega erabilli ondoren, eskuarea bear izaten du, belar-biltzeko. Erabat zurezkoa da. Barra ortzduna da, kirtenari gurutzeka josia. Neurri askotako eskuareak ditugu a batetik bestera ba-dute berezitasunik.

## 62. ZAGIGINTZA

Zaragia, auntz-larruzko zati osokoa da. Eskulangilleak, illea eror ez dakion, gatzatu ondoren, josteari ekingo dio. Larruontzean datza zagigintzaren arazorik garrantzizkoena. Bana-banaka ontzen dira zagigaiak. Azken-lana zagia pikeztatzea da. Pikea olio z naasi ondoren, surtan urturik zagiratzen da. Larruzko zorro



au erabili izan oi da olio naiz ardoak eraman-ekartzeko. Bagoikada bat laro-geitamar zaragit osatzen zuen, bakoitzak larogetamar-eun litro zituelarik. Bukoiak eta kamioi-ontziak ia galduerazi du erabat zaragia.



### 63. IRULEA

Gauregun, egurrezko naiz bur-nizko kiloaren atzean exeririk dakus-kegun emakumea, bai ikusgarri bitxia! Aspaldian ordea, jardukizun arrunta gure basetxetan. Iruleak, illauna garbitu, eguzkitan legortu ta makillaz astindurik arrotzen du. Gero, zerrendetan luzatzen saiatuko da. Eta orrela, ille-zerrenda oek, tramankuluaren oiñ-olari eragiñaz, ari-bil biurtuko.



### 64. MALATXA

Esnea mamitzen denean mala-txaren bidez naasten da, ta ortarako darabilten esneeragalluari deritza malatxa. Leen, aspaldi ezte-la, zurez-koa zan; oraiñ, ordea, metalezkoa erabiltzen dute.



## 65. LAYA

Lanabes oso antxiñakoa dugu auxe iñolazere. Galtzairuzko anka-biko edo ortzbikoa da, bostenbat zentimetroz elkarbanatuak ditu oiñak, eta larogei inguru luze. Mutur zorrotzak ditu. Oin baten burualdean begizuloa du, zurezko kider edo eskuleku moztaka bat ezartzeko. Ba-da beste laya au baño ezberdixeagoa ta berebat zaarxeago ere. Eskuleku luzeago-duna, ortzak motzagoak eta alkarbanatuak. Inoiz ikus diteke nunbait lur-goldeberritan ertzetako zotalak iraultzen.



## 66. BUSTIÑONTZIGINTZA

Lurontzigitza-lana arrunt zaarra dugu Beronen eskuantze edo teknikak, Arriaroberriraño garamazki. Bustiña moldatze lanak, orduraño nekez lortu zitekean moduko ontzite-ria jarria zuen gizaeskutan. Leenaldi artan, esku-utsez egin oi zuen bustiñ-moldatze lan osoa, gaur, ordea, aldiaren aldabearrez, tornu-bidez dagi bustin-moldaketa ta ontziaren neurri ta gogozko zaion tankera ematea. Ontzia legortu ondoren laberatu egingo du, berorren egosketaz lan dana bukatzen duelarik.

